



GIZAESKUBIDEAK  
ESKUZESKULpina

# Euri eta zapi magikoa



Gobierno  
de Navarra



Nafarroako  
Gobernua



**EGILEAK:**

Peio Lopez-Iturri, CP Juan Bautista Irurzun IP (Peralta), CP Puente la Reina / Gares IP (Puente la Reina / Gares), Auzperriko Eskola (Espinal / Aurizperri), Paz de Ziganda Ikastola (Villaba / Atarrabia), CPEIP San Bartolomé HLHIP (Rbaforada), San Miguel Herri Eskola (Uharte Arakil), Lizarra Ikastola (Estella / Lizarra), Ibarberri IP (Lekunberri), Argia Ikastola (Fontellas), San Miguel IP (Santesteban / Doneztebe), Erentzun Ikastola (Viana), Garces de los Fayos Ikastola (Tafalla), Arotzenea IP (Narbarte), Hegoalde Ikastola IP (Iruñea), Nazabal Eskola (Areso), CP San Miguel IP (Noain), CPEIP Urdazubi-Zugarramurdi HLHIP (Zugarramurdi), Sanduzelai IP (Iruñea), Erreniega IP (Zizur Mayor / Zizur Nagusia), Kuku Eskola (Legasa), Larraintzarko Ikastetxea (Larraintzar), CP Zelandi IP (Alsasua / Altsasu).

**KOORDINATZAILEA:**

Irati Goikoetxea Asurabarrena (Bizikidetzeta Atalburua)

**EDIZIOA:**

Nafarroako Gobernua-Gobierno de Navarra  
Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentua  
Memoria eta Bizikidetzeta Zuzendaritza Nagusia

© Gobierno de Navarra-Nafarroako Gobernua

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Horixe Diseño

**ILUSTRAZIOAK:** Javier Unzué

**INPRENTA:** Gráficas Astarriaga S.L.

**LG:** NA 2824\_2023



GIZA ESKUBIDEAK  
ESKUZESKU *Ipuina*  
2023





## AURKEZPENA

Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko Memoria eta Bizikidetzaren Zuzendaritza Nagusiak duela lau urte abian jarritako **“Ipuina eskuz esku Giza Eskubideak”** ekimenak bosgarren edizioa ondu du aurten. Zuzendaritza Nagusiko Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zerbitzuak Giza Eskubideak ardatz hartuta, urtean zehar bultzatzen dituen proposamenetako bat da, **“Memoria duten eta Bakea eta Bizikidetzaren duten Eskolak”** programaren baitan garatzen dena. Orain dela lau urte abiatutako bideari helduz, aurten ere, Nafarroako Lehen Hezkuntzako ikastetxe ezberdinak izan dira Giza Eskubideen Nazioarteko Egunaren harira martxan jarritako proiektu honetako protagonistak.

2023ko urrian eta azaroan, 20 egun lektiboetan zehar, jarraipena eman zaio batetik Marisol Artica Zurano idazleak hasitako gaztelaniazko ipuinari eta bestetik Peio Lopez-Iturri idazleak euskaraz hasitako ipuinari. Egunero-egunero, ikastetxe bat arduratu da ipuin-kate bakoitzari lerro batzuk gehitzeaz. Ipuinaren lanketa aitzakia polita izan da Giza Eskubideak aztertu eta lantzeko, irudimena, sormena, ideia trukea, eztabaida, adostea, irakurketa eta idazketa lantzeaz gain. Proiektu komun batek elkartu ditu Nafarroako txoko ezberdinetako ikasleak eta harro

sentitzeko moduan dira egindako lanagatik, prozesu eraginkor batek emaitza zoragarria utzi baitu: abenturaz beteriko bi ipuin eder.

Guztira 39 ikastetxetako 1.500 ikasle pasatxok parte hartu dute beren irakasleekin batera. Aurreko lau edizioetan egin zuten bezalaxe, aurten ere, parte hartu duten irakasle arduradunek balioan jarri dute bai ekimena eta baita ikasleek jarri duten gogoia eta ilusioa ere. Beraien hitzetan jarduera hau gelan landu ahal izatea oso interesgarria izan da.

Sortutako bi ipuinak biltzen dituen ale hau, bildumako beste laurak bezalaxe, Nafarroako ikastetxe eta liburutegi guztietara iritsiko da gizarteari egindako lan polita erakusteko asmoz. Irakasleek, familiek eta gizarteak, oro har, Giza Eskubideen inguruko lanketa egiteko tresna egokiak izango dira hemendik aurrera bi ipuinok.

Memoria eta Bizikidetzazuzendaritza Nagusiak eskertu eta txalotu egin nahi du proiektu honetan parte hartu duten pertsonen azaldu-tako konpromisoa eta egindakoa mimoz, goxotasunez eta ilusioz egin izana. Orain, irakurle, zuri dagokizu irakurketarekin gozatzea eta irakurritakoa hausnartu eta partekatzea.

*Memoria eta Bizikidetzazuzendaritza Nagusia*  
*Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentua*  
*2023ko abendua*














Euri  
eta zapi  
magikoa



Azken boladan, Eurik amesgaizto berbera dauka gauero: eskolarako bidean doala, zulo beltz bat irekitzen da haren azpian, eta bertatik behera amilduz, oihan baten erdian dagoen putzu lokaztu batera erortzen da. Bertan haur txiki bat dago, bakar-bakarrik. Eurik ez du ezertaz ezagutzen, baina auskalo zergatik, Daela izena duela, Kolonbian dagoela eta 5 urte dituela badaki. Daela urrezko pipiten bila ari da, eta hankak belaunetaraino sartuta geratu zaizkio lokatzetan. Ezin da handik atera. Daela larri dabil, eta Euriri laguntza eske hasten da, negarrez: “Euri, lagundu! Mesedez, Euri!” Baina Euri ere ezin da mugitu, gerriraino lokatzetan sartuta baitago. Daelak eskuan daukan palan loturik dagoen zapi fosforeszentera begira geratzen da Euri, bertan iltzatuta, Daelari ezin lagundurik. Orduan... orduan hasten da lurrikara, eta lokatzak Daela guztiz irenstear dagoenean... Euri supituki esnatzen da, aztoratuta, ohea eta burkoa izerdiz blai. Etxean dagoela konturatzean, ondoan duen pelutxea besarkatu eta lasaitu egiten da.

Gaur ere amesgaiztoa errepikatu egin da. Baina gaur Euri ez da bere ohean esnatu. Oihan erdian esnatu da, lokatz putzu batean. Ez du inor ikusten inguruan, eta bere

ondoan, pelutxea egon beharrean, pala bat topatu du. Zapi fosforeszente bat loturik daukan pala txiki bat.

Oso urduri dago, erdi negarrez, putzutik ateratzea ezinezkoa delako. Zer egin ez dakienez, pala hartu eta lokatza kentzen hasi da. Nahi gabe urrezko pipita batzuk aurkitzen ditu eta pozez oihan osoan zehar entzun diren oihuak bota ditu. Bat-batean, Daelaz oroitu da, bere ametsetako neskaz. Urrezko pipiten bila ari zen Daela. “Nola aurkitu dezaket? Kolonbian bizi da. Nola joango naiz haraino?”, marmarka hasi da Euri.

Urrezko pipitak poltsikoan gorde eta zapi fosforeszenteari begiratu dio Eurik. Lehenengo putzutik atera behar du. Baina nola? Nahi gabe zapia astindu du eta distira egiten hasi da. Eurik ozen esan du “Putzutik atera nahi dut” eta zapia magikoa denez, hegan atera da Euri.

Euri superheroi bihurtu da zapiaren botere magikoei esker. Mapa bat egin du Daela bilatzeko eta hegan zihoa-  
la itsasontzi bat ikusi du. Hor geratzea erabaki du irla bat ikusi duen arte. Irlan geratu da egun batzuetan atsedean hartzeko.

Haitiko irla da; orain dela urte batzuk bertan izugarriko tsunamia egon zen. Euri beldurtuta dago, berriro

gerta daitekeelako. Gaur egun, hiri eta herrixkak berreraikitzen ari dira. Daelaz ahaztu gabe, Euri bertako biztanleak laguntzen hasi da eta lokatzetatik hartutako pipitak erabili ditu laguntza emateko.

Pipita horiek tsunamia dela eta etxebizitza galdu zuten familiei oparitu dizkie, baina beharra duten familia guztiei laguntzeko nahikoa ez dela konturatu da. Orduan, zapi fosforeszentea duen palari urrezko pipita gehiago eskatzea erabaki du. Zoritxarrez, argi fosforeszentea itzaltzen hasia dela ohartu da, beraz, magia bukatzeaz dagoela ikusi du. “Gehienez jota, azken desio bat eskatzeko adina bateria izanen du”, pentsatu du Eurik, “Zein desio eskatu dezaket ahalik eta pertsona gehien laguntzeko?” Bat-batean, argi ikusi du bere azken desioa: “Urrezko pipitak ematen dituen hainbat zuhaitz landatzea”. Esan eta egin, zapia distiratsu jarri eta lurrean landaturik ehunka urrezko-pipita-zuhaitz begiztatu ditu. Une horretan bertan, argi fosforeszentea itzali da. Betiko ote?

Momentu horretan negar batean dauden gizon eta emakume bat Eurirengana hurbildu eta ondorengoa galdetu diote:

- Kaixo! Gure alabaren bila gabiltza. Tsunamia gertatu zenetik ez dugu topatu. Ilea beltza eta kizkurra dauka, 5 urte izango lituzke orain eta Daela du izena. Lur jota gaude.

Euri zur eta lur geratu da pertsona horiek bere amestetako neskatilaren gurasoak direla jakitean. Besarkada handi bana eman die, hiruren bihotzak elkarrekin taupadaka hasi dira “taup-taup, taup-taup, taup-taup...” eta Kolonbiara teleportatu dira.

Begiak ireki dituztenean, soldaduz jantzitako haur batzuk ikusi dituzte. Ume haien ezpainak ortzadarrak dira. Euriri gaztetxo horiek ere goxoki bat duten haurrak bezain zoriontsu ikustea gustatuko litzaioke.

- Misio garrantzitsua dugu -esan du soldadu nagusiak. Eurik Daelaren gurasoak salbu jartzeko beharra sentitu du, baina teleportatzen saiatu denean, konortea galdu du soldadu gazteen aurrean, ziplo eroriz. Esnatzerakoan Euri bere logelan agertu da. Lo egin nahi du, baina alferrik. Ezin da berriz ametsean sartu Daela laguntzeko, egu-nero saiatzen da eta lortu arte ez du etsi.

Buruari eman eta eman dabilela, ideia bikain bat bururatu zaio: amona Mari Karmen lo egin ezinik egoten





denean, lo egiteko pilulak hartu eta seko gelditzen dela gogoratu du. Beraz, amona Mari Karmenen etxera joan eta, ezkutuan, pare bat pilula lapurtu dizkio. Ezin izan du gauera arte itxaron eta pilula bat irentsi du. Bat-batean, lehoi bat ikusi du!!!! Baina, non dago Euri? Elefanteak ikusi behar izan ditu Afrikan dagoela jakiteko. Okerreko lekuan esnatu da!!!! Nola joango da Kolonbiara? Itxaron... Urrunean zapi fosforezente bat ikusi du... Zapi magikoa izango ote da?

Zapiaren bila abiatu da eta, bidean, ume hotsak entzun ditu. Nondik datoz? Begira eta begira, ez du inor ikusten... Ordu batzuen buruan, zapia hartuta, bere entzumen finari esker, mehatze batera iritsi da: handik zetozen hotsak!!! Baina, baina... Zer da ikusten ari dena?

Barrura sartu eta Euri beldurtuta gelditu da. Zortzi ume ikusi ditu bertan, morroi bezala lan egiten. Gaixoak, arropa zaharrarekin eta zauriz josita daude lan eta lan urrezko pipitak bilatzen. Eurik argi izan du ume horiei lagundu gabe ezin duela alde egin. Une horretan zapi magikoaz oroitu da.

Euri ume horiengana hurbildu eta hizketan hasi da.

- Kaixo, non gaude? Zer egiten ari zarete hemen?

Umeak harrituta geratu dira Euriren azalaren kolorea ikusita, kolore argiko jendea ikusten duten lehenengo aldia baita. Hala ere, lotsa berehala pasatu zaie eta berriketan hasi dira beraiek ere.

- Kaixo –esan du horietako neska batek, Esta du ize-na-. Burundin gaude eta nagusi gaizto baten zerbitzura gaude. Gure etxetik aterarazi eta lanera behartzen gaitu.

- Baina... hori ezin da gertatu!! Umeok eskolara joan behar dugu. Guk lan egitea debekatuta dago -erantzun du Eurik, guztiz harrituta eta haserre.

- Hori zure herrian izango da –erantzun du Adama izeneko mutiko batek-. Hemen, Afrikan, gauzak ezberdinak dira: gure eskubideak askotan ez dira errespetatzen eta janari gutxi daukagu, horregatik jende askok Europara joan nahi izaten du, bizitza hobe baten bila.

Mohamed izeneko batek hau azaldu du:

- Nire aitak, duela bi urte, Europarako bidaia hasi zuen, baina ez dakigu iritsi ote den. Joan zenetik ez dugu bere berririk jaso.

Euri pentsakor geratu da.

Halako batean, zapi fosforezenteaz gogoratu eta argi pixka bat duela ikusi du. Beraz, bi aldiz pentsatu gabe ondokoa galdetu dio:

- Non dago Mohameden aita?

Zapiak mapa bat eman dio eta bertako ume batzuen laguntzarekin Mohameden aitaren bila joan da Euri. Lehengo, itsasontzi txiki bat hartu eta bide gogor baten ondoren, Bartzelonara iritsi eta handik bizikletan Galiziara joan dira. Galiziara iristean, Mohameden aitaren argazkia erakutsi diete kalean topatutako pertsona guztiei.

Egun batzuk galdezka pasa ondoren eta inork ikusi ez duela konturatu direnean, mapa berriro begiratu eta ohar-tu dira etxe bat gurutze batekin markatua dagoela. Zapi fosforezentea hartzean argirik ez duela konturatu dira. “Auto-stop” egin eta lapur batzuen autoan bukatu dute. Iritsi behar ziren tokira iristean, lapurrek ez diete kotxetik ateratzen utzi eta Eurik ostiko bat emanda ihes egin dute.

Halako iskanbila entzunda, Mohamed-en aita leihora atera eta esan die:

-Etorri gora, azkar!



Ziztu bizian bere etxera igo dira eta Mohamed-en aita atea itxi du, bost kisketa paratu ditu. Jende asko dabil Mohameden aitaren atzetik eta beldurrez bizi da, ezkutu. Bongani du izena eta kontatu die bere altxorra etxean gordea duela. Mona Lisaren koadro baten atzean kamera sekretu bat azaldu da. Bertan mapa bat dago mahai baten gainean... Altxorraren mapa da! Umeeek eta Eurik mapa hartu dute eta Bonganiarekin afaria partekatu dute.

Altxorra aurkituz gero, denek bizimodu hobego bat izango dutela esan die. Une horretan, Euri eta lagunak mapa begiratzen geratu dira eta bide bat aurkitu dute. Bide hori zaila eta arriskutsua da, labirintoz betea. Eurik badauki bide hori arrakastaz egiteko, lagunak laguntza beharko duela beraz, denon artean hitz egin dute eta talde-lanean arituko direla adostu dute. Mohamedek zalantza egin du aitarekin gelditu edo ez, baina azkenean abenturaren parte izan nahi duela erabaki du eta itzuliko dela egun batzuk barru aitarengana.

Etxetik atera direnean hor ikusi dituzte lapurrak. Zapiaren zati bat lurrean aurkitu dute eta oraindik distira egiten du. Zapiari buelta eman diote:

- Lapurrak desagertzea nahi dugu!! -esan dute denek ozenki.

Lapurrak desagertu egin dira. Eurik guztiak telepor-tatu ditu eta Bogotan agertu dira. Han ume batzuk ikusi dituzte kobazulo batean.

- Zer egiten ari zarete? -galdetu die Eurik kezkatuta.

- Bauxita bilatzen ari gara -esan die mutiko batek.

- Zer da bauxita? -galdetu du Eurik.

- Mugikorrek egiteko erabiltzen den material kutsakor bat. Zulo txikietan bilatu behar dugu eta batzuetan gutako batzuk hiltzen dira zeregin horretan.

- Baina lan hori ezin duzue haurrek egin!

- Horrelakoa da hemen gure bizitza -esan du muti-koak.

Eurik kezkatuta eskua sakelean sartu du eta urrezko pipita batzuk atera ditu. Ikusi du urrezko pipiten indarrarekin, bauxita erakartzen duela eta bere indarrarekin zapiaren argia gehiago piztu dela. Denon artean desio bat pentsatu eta elkarrekin oihukatu dute:

- Zapiaren argia inoiz gehiago ez dadila itzali!

Bat-batean Euri lokartu egin da berriro eta Marruecoseko herri batean azaldu da. Herri horretan lurrikara bat gertatu berri da eta etxe gehienak apurtuta daude. Jendeak ez du ez etxerik, ez janaririk, ezta urik ere. Harrien artean zapiaren argia ikusi dute eta argia ikusita azkar-azkar desio hau eskatu dute:

- Mundu guztiko haurrentzat janari eta ur nahikoa izatea!

Euri buruari bueltak ematen geratu da. Gauza asko ikasi ditu bere ametsei esker, bereziki munduan zehar ume askok sufritzen dutela. Orduan, janaria eta ura eskatzeaz gain, eskolak, etxeak eta ospitaleak berreraikitzea erabaki du. Horretarako, zapi magikoa hartu eta hori guztia eskatu dio.

- Nire zapi maitea... gaurkoan haur guztientzat janaria eta ura eskatzeaz gain, eskolak, etxeak eta ospitaleak berreraikitzea eskatzen dizut... mesedez, faborez eta arren! -esan du Eurik.

Bat-batean, zapiak mugimendu arraroak egin eta hitz solteak xuxurlatu ditu:




- Kaixo... Euri... pipitak... urrea... ura... magia... haurrak... eskolak... ospitaleak... lapurrak... Bartzelona... Galizia... Mohamed... lokatza... ametsak.

Begiak ireki eta ama ondoan du Eurik ezin esnatuz eskolara joateko. Amak, ametsaz galdetu dio, oihuka aritu baita gauean. Baina Eurik ez dio ezer kontatu amari, amonari pilulak hartu baitizkio eta ez du nahi inor konturatzerik. Euri gosaldu, jantzi, motxila prestatu eta ikastolara abiatu da pentsakor eta gaua iristeko irrikitan.

Eskolara iristear dela, kotxe batek harrapatu du eta koman sartu da. Bere ametsetan murgildu da berriro. Indian esnatu da, eta bertan Mohamed topatu du. Honek zapia elefante baten azpian dagoela esan dio, eta Euri pentsatu gabe zapia berreskuratzerantz joan da. Daelarekin berriz elkartu nahi du, ziur baitago amets horren arrazoia berak ezagutzen duela.

Azkar konturatu da hiria, ezagutzen dituen besteekin konparatuz, desberdina dela: kaleak zikinak, usain txarra... baina hemen ere, haur txikiak ikusi ditu kalean lanean egoera oso gogorrean. Horregatik, gainerako arrazoiak ere kontuan izanda, zapia lortu behar du bai ala bai. Une



horretan elefanteak Euri ikusi du gerturatzen eta, beldur-tuta, ihes egin du. Kostata, baina Eurik zapia berreskuratu du, lau zatitan puskatua aurkitu du, ordea. Euri oso oso triste geratu da ezingo duelako Daela aurkitu eta gainontzeko desioak ez direlako beteko. Baina zatitxoek distira mantentzen dutela konturatu da.

Zatitxoak poltsikoan sartu eta Mohamedi nola konpondu dezakeen galdetu dio. Mohamedek zapia Brasilen bakarrik konpondu daitekeela esan dio. Aireporturako bidean, armiarma baten hozkadak hegan egiteko ahalmena eman dio eta Brasiler a biatu da ziztu bizian armiamaren pozoiaz itsututa.

Hegan doala, poltsikoan zituen zapi zatiak erori egin zaizkio. Bat-batean, armiamaren pozoia ren efektua pasatzen ari zaiola konturatu da. Altuera galtzen hasi da eta bat-batean itsasora erori da, balea baten gainera. Momentu horretan baleak arnasketa sakon bat egiten du eta espirakulotik ura botatzearekin batera, Euri zerurantz bidali du. Zast! Bidean tximista batek jo du. Bat-batean ospitaleko ohean esnatu da, desfibriladorea bere bularrean deskargak botatzen ari da.

Euri gaizki sentitzen da oso, ikusi dituen irudiak tar-teko min handia du bihotzean, hainbeste ume lanean ikusi-ta. Bat-batean deskarga batekin hegan atera da, eta sabaia puskatuta, Eguzki izeneko pertsona bat lainoetan ikusi eta lagunak egin dira. Eguzki eta Euri lagunak egin ondoren, agurtzeko momentua iritsi denean, besarkada bat eman diote elkarri eta ortzadarra atera da. Ortzadarretik "zorion-tasuna" hitza erori da.

Euri hodeietan dago, zoriontasuna hitza erortzen hasi da, Eurik zoriontasun hitzaren atzetik egin du bidea eta bat-batean Afganistanen azaldu da. Zoriontasun hitzak azeri forma hartu du. Azeriak esan dio zapi zati bakoitza munduan zehar banatuta geratu dela poltsikotik erori zaiz-kionean, haizeak eraman dituela eta berak lagunduko dio-la bilaketan.

- Non gaude? -galdetu dio Eurik azeriari.

- Kabul hirian gaude, Afganistango hiriburuan -eran-tzun dio zoriontasun azeriak.

Urrutian, jende pila bat ikusi dute ospakizun batean, festa bat dirudi. Munduan zehar egindako bidaia horre-tan, Eurik zerbait alai aurkitu duela pentsatu du. Festa horretara hurbiltzea erabaki dute. Iristean, jende artean

sartu dira eta erdian neska gazte bat, 10-11 urtekoa, gizon zahar baten ondoan eserita, hari eskutik helduta.

- Zer da festa hau? -galdetu diote ondoan dagoen mutil bati.

- Hau ezkontza bat da eta gure herrialdean normala da neska gaztetxoak gizon zaharrekin behartuta ezkontzea. Askotan gizon hauek neskaren familiari diru asko ordaintzen diote haien alabarekin ezkontzeagatik -erantzun dio mutilak.

Eurik ezin du sinetsi begien aurrean duena. Ezkontzen ari den neskaren aurpegiak beldurra, tristura... adierazten du, gizonaren aurpegiak berriz alaitasuna eta poza. Neskak belo koloretsu bat du buruan jantzita eta halako batean Euri konturatu da berak galdutako zapi zati horietako bat beloari josita zegoela.

- Zerbait egin beharra dut! -pentsatu du Eurik berekiko.

Orduan buruari bueltaka hasi da, neskaren beloko zapi pusketan behar duelako. Ezkontza hori nolabait gelditu beharra du. Oihuka eta laguntza eskatzen hasi da Euri, kalean pertsona bat berari segika ari delako. Orduan, ez-

kontzako partaideak ezkontza gelditu eta Euriri laguntzen hasi dira. Eurik beloko zapi puska hartzeko momentu hori aproposa dela pentsatu du.

Eurik urrezko beste pipita bat atera eta txikitu egin da borragoma baten tamaina hartuz. Horrela lortu du neskatxaren belora salto egitea. Berak poltsikoan zuen beste zatia atera eta bi zatitxoak elkartu ditu, berriz ere distira eraginez. Euri, oraindik txikia dela probestuz, neskatxaren belarri ondoan jarri eta zera esan dio:

- Gizonarekin ezkondu nahi duzu? Ez baduzu nahi, nik lagunduko dizut, baina horretarako zure zapia behar dut, gure desioak betetzeko gaitasuna du.

- Ez dut ezkondu nahi! Zapia emango dizut eta zurekin ihes egingo dut! -erantzun du Aisha neskatxoak.

Orduan, zapi zatiak elkartzean, zapia indarrez kargatu da eta Afganistandik desagertzea lortu dute biek.

Ordu batzuk pasata, Aisha eta Euri Burundin agertu dira. Burundin daudela ikustean, Aishak galdetu dio:

- Euri, zertara etorri gara hona?

- Kontatu nizun bezala, ume batzuk hiltzeko arriskuan daude eta gure laguntza behar dute -erantzun du-.

Gainera, guk ume horiei laguntzen badiegu, haiek zapiaren hirugarren zatia bilatzen lagunduko digute eta horrela, Daela lehenago izango dugu gurekin.

Haien sorpresarako, umeek zapiaren hirugarren zatia aurkitua dute buxita mineralaren artean, eta esker onez, zapiaren zatia eman eta Daelaren bilaketara gehitu dira.

Zapia handitzearekin batera, energiaz bete eta azkeneko bidaiari ekin diote denek. Nora? Kolonbiara.

Kolonbiako hondartzan azaldu dira eta bertan ume bat itotzen ari dela ikusi dute. Euri eta lagunak umea laguntzera hurbildu dira, baina igeri egiten ez dakitenez, hondoratzen hasi dira. Ur azpian daudela, arnas dezaketela konturatu dira. Une horretan, zapia hurbil egon daitekeela konturatu, eta begiak zabaldu eta distira bat ikusi dute. Distira jarraituz, tenplu batera iritsi dira. Tenpluan sartu eta zapiaren laugarren zatia aurkitu dute. Hau poza!


Laugarren zati hori beste zatiekin lotzerakoan argi izugarria agertu da eta argia jarraituz tenpluko gela batean azaldu dira. Gela horretan horma-irudi oso handia eta koloretsua dago, handik ahots bat atera da eta umeak hurbiltzen hasi dira, hurbiltzen eta hurbiltzen, ahots horrek gero eta indar gehiago daukalako. Eurik Daelaren oihuak

direla pentsatu du eta denak batera murala ukitzera joan dira. Momentu horretan muraletik esku batzuk atera eta umeak harrapatu egin dituzte.

Orduan, munstro handi batek bahitu ditu. Esku horiek munstroarenak dira. Handiak eta itsusiak dira. Munstroa berdea da eta hortz handiak ditu. Euri beldurtu egin da eta ihes egiten saiatu da. Baina, irteerarik ez dagoen kaiola batean daudela konturatu da. Azkenean, munstroarekin hitz egiten hasi eta zintzoa dela konturatu da. Daelarengatik galdetu dio, ea ezagutzen duen. Munstroak baietz esan dio. Gaiztoek kanpoan duten tenpluan lan egiten duela esan dio, esklabo bezala lan egiten duela. Munstroa ere morroia da eta duen itxuragatik beldurra ematen duenez pertsonak bahitzeko erabiltzen dute. Orduak pasa dituzte hitz egiten eta Daelarengana iristeko plan bat sortu dute.

Ateratzen hasi direnean, munstroa bat-batean gaizto bihurtu da eta umeak banan-banan jan ditu. Umeak zorabiatuta iritsi dira heste lodira. Bertan, argi distiratsu bat ikusi dute eta harengana joan dira, baina ezin izan dute hartu. Erdian azido erreka bat topatu dute. Bertan munstroak aurretik jan dituen beste haurren hezurak topatu dituzte. Etsitzera zihoazela, Eurik ideia bat izan du!





Hezurrak hartu eta zubi bat egin dute. Zapia hartu dute-nean, Daela dagoen tenplura joateko desioa eskatu diote.

Berehala iritsi dira tenplura. Bertako gela batean, ume asko hiltzorian ikusi dituzte eta horien artean Daela. Euri eta bere lagunak izutu egin dira, haurrak ia biluzik daude, gaixorik, beldurtuta, zauriz beteak, gosetuak, egarri... Azkenean! Daela aurkituko dute eta lagundu egingo diote. Baina ez bakarrik Daelari, han dauden umei ere lagundu egin nahi diete. Baina nola?

Orduan oroitu dira Mohamedek esandakoaz, zapia Brasilen bakarrik konpondu zitekeela behar zen bezala. Berriro beste bidaia bat egin behar dute? Indarrak elkartuz, ahulduta zegoen zapitxoari eskatu diote Brasilerara teleportatzeko eta horrenbeste indarrez eskatu dutenez konturatu gabe Brasilen azaldu dira. Orain bai! Zapia berri-berria dago eta indar handia du arriskuan dauden munduko ume guztiengana iristeko eta denak erreskatatzeko. Eta hala egin dute eskutik hartuta, indar handiz eskatu eta berriro Bogotan daude. Denak batera kobazuloan sartu dira Daela erreskatatzeko nahiarekin eta han ikusi dute soka batzuekin lotuta zulo beltz batean eroria...

Bat-batean, Euriri zapia zulotik erori zaio. Euri zulotik eskalatzen hasi da, baina ez du zapia aurkitu. Hala eta guztiz ere zorte handia izan du, zapiak erortzerakoan saguzar bati kolpe bat eman baitio. Saguzar guztiak esnatu dira eta Daela zulotik atera dute. Daelak odola du buruan eta lepoan.

Ospitalera eraman dutenean Euri esnatu egin da eta erizainek ebakuntza egin behar diotela esan dute. Eurik erizainei esan die anestesia jartzeko. Jartzean, Euri poz-pozik lokartu da. Bogotan dago berriz ere, eta Daelaren zauriak sendatu ondoren, Tenplutik lehenbailehen atera dira Haitira bueltatzeko eta Daela bere gurasoekin elkartu ahal izateko. Zulotxo txiki batean argi fosforeszente bat ikusi du Eurik. Han bertan dago zapi magikoa. Zapia hartu, eta Daela besarkatuz, Daelaren desiorik handiena bete da: Haitira teletransportatu eta Daela bere gurasoekin elkartu da. Hau zoriona! Daelari laguntzea lortu du azkenean!

Zapiaren botereari esker, Eurik eskuetan zapia du esnatu denean. Ametsetan gertatu den guztia egia dela konturatu da eta benetako boterea duela mundu guztiko umeak salbatzeko. Botere hau aprobe txatuz Eurik desio bat eskatu dio zapiari, mundu guztiko umeek janaria, ura, arropa, eskola, etxea eta jostailuak izatea.

Eta hemendik aurrera zapi magikoa sekula gehiago beharko ez duenez, Eurik kutxa batean gorde du eta bere etxeko lorategian lurperatu du. Euriren ahaleginei esker munduko ume guztiak mundu justuago batean bizi ahalko dira eta euren eskubideak ez ditu inork eta ezerk urratuko.





